

Euskara, hizkuntza akademikoa: laburpenen sistematizazioa helburu

El euskera como lengua académica: el objetivo de
sistematizar los resúmenes

Le basque, langue académique : avec pour objectif la
systématisation des résumés

Basque as an academic language: the objective of
systematizing the summaries

BEREZIARTUA ETXEBERRIA, Garbiñe
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
University of the Basque Country (UPV/EHU)
Didactics of Language and Literature
garbine.bereziartua@ehu.eus

BOILLOS PEREIRA, Mari Mar
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
University of the Basque Country (UPV/EHU)
Didactics of Language and Literature
mariadelmar.boillos@ehu.eus

Noiz jaso: 2022-02-25

Noiz onartua: 2022-06-08

Ingelesa hizkuntza hegemonikoa bihurtu da inpaktu handiko argitalpen zientifikoetan, eta hizkuntza gutxituak itzaletan gelditu dira. Eragin hori nabarmenagoa da ibilbide akademiko laburra daukaten eta diskurtsoaren ezaugarriak oraindik definituta ez dauzkaten euskararen gisako hizkuntza gutxituen kasuan. Lan honetan, artikuluko zientifikoaren laburpenen ezaugarriak aztertzen dira. Horretarako, ikerketa misto bat egiten da, non Swalesen mugimenduen teoria (1990) eta hizkuntza-azterketa bat aplikatzen diren. Emaitzen arabera, oro har ez dago homogeneousunik, baina ezaugarri zehatz batzuetan joera batzuk identifikatu dira. Emaitza horiei esker, euskara zientziaren hedapenerako hizkuntza gisa instituzionalizatzeko erronka berriak identifikatu daitezke.

Gako-hitzak: idazketa akademikoa, alfabetatzea, hizkuntza minorizatuak, Giza Zientziak.

El inglés se ha convertido en una lengua hegemónica en las publicaciones científicas de gran impacto y las lenguas minoritarias han quedado eclipsadas. Esta influencia es más acusada en el caso de lenguas minoritarias como el euskera, que tienen una corta trayectoria académica y cuyas características discursivas aún no han sido definidas. Este trabajo examina las características de los resúmenes de artículos científicos. Para ello, se realiza un estudio mixto en el que se aplica la teoría del movimiento de Swales (1990) y un estudio lingüístico. Los resultados muestran que no existe una homogeneidad general, pero se han identificado ciertas tendencias en algunas características específicas. Estos resultados identifican nuevos retos para la institucionalización del euskera como lengua de divulgación científica.

Palabras clave: escritura académica, alfabetización, lenguas minoritarias, Humanidades.

L'anglais est devenu une langue hégémonique dans le domaine des publications scientifiques de grand impact et les langues minorisées sont restées dans l'ombre. Cette influence est encore plus forte dans le cas des langues minorisées comme le basque, qui ont une faible portée académique et dont les caractéristiques du discours ne sont pas encore définies. Ce travail étudie les caractéristiques des résumés d'articles scientifiques. Une étude mixte a donc été réalisée en appliquant la théorie du mouvement de Swales (1990) et une étude linguistique. Les résultats montrent qu'on ne constate pas d'homogénéité mais qu'ont été identifiées des tendances dans quelques caractéristiques spécifiques. Ces résultats permettent d'identifier de nouveaux défis pour l'institutionnalisation de la langue basque comme langue de diffusion scientifique.

Mots-clés : graphie académique, alphabétisation, langues minorisées, Sciences Sociales.

English has become the hegemonic language of prestigious scientific publications and minority languages have been relegated to the shadows. In order for them to achieve a status in the academic field, it is recommended a systematization of the characteristics of the discursive genres for the dissemination of knowledge. This study analyzes the characteristics of abstracts. It is a mixed study based on Swales' movements theory (1990) and a study of the linguistic features. The results show that, in general, there is no homogeneity, although some trends have been identified. These results help to identify new challenges in the institutionalization of Basque as a language for scientific dissemination.

Keywords: academic writing, literacy, minority languages, Humanities.

BEREZIARTUA ETXEBERRIA, Garbiñe, BOILLOS PEREIRA, Mari Mar. (2022). «Basque as an academic language: the objective of systematizing the summaries», *Euskera* 2022, 67: 33-62.

Sarrera

Esparru akademikoan ingelesa nagusitu den heinean, beste hizkuntzetako argitalpen zientifikoak bigarren mailan geratu dira. Hori oztopoa izan da ingeles-hiztunak ez diren zientzialarientzat (Van Dijk 1994); ez ikerketa-gaitasunengatik, hizkuntza-mugengatik baizik. Hori horrela izanik, diskriminatu egiten dira beren espezializazio-esparruetan (Canagarajah 2004).

Beste hizkuntza nagusi batzuetako (besteak beste, espainiera, alemana edo arabiera) hiztunak diren ikertzaileak argitalpen zientifikoan sailkapenetan eskatzen diren parametro zorrotzen artean bidea egiten ari badira ere, egoera askoz ere konplexuagoa da hizkuntza gutxituetan argitaratu nahi duten ikertzaileentzat. Hizkuntza gutxituetan argitaratzen duten aldizkariaren artean, ebaluazio-agentziek markatzen dituzten kalitate-estandarrak betetzen dituztenak urriak dira gaur-gaurkoz.

Euskara komunikazio modu espezializatu bilakatzeko eta hizkuntza horretako argitalpenei bultzada bat emateko, beharrezkoa da, lehenik eta behin, diskurtso-generoen ezaugarriak erabiltzaile guztiek –idazleek zein irakurleek– identifikatzeko modukoak izatea. Horrela, lan honen helburua da Giza Zientzien arloan euskaraz idatzitako laburpenen (*abstract-en*) corpus bat osatzea eta horien ezaugarriak identifikatzea. Testu-genero hori hautatu da hedapen zientifikorako lehen mailako baliabidetzat har daitekeelako; tradizionalki artikulua zati bat zela pentsatu izan bada ere, izatera propioa duen testu-generotzat hartzen da egun (Tseng 2011; APA 2020). Helburu orokor horrek honako helburu zehatzagoak biltzen ditu bere baitan, hizkuntza zeinahi dela ere: (i) testuen ezaugarri diskurtsiboak ezagutzea eta (ii) testu-genero horretan berezkoak izan daitezkeen hizkuntza-ezaugarriak identifikatzea.

Helburu horiekin, lan honek, lehenik eta behin, euskarak panorama zientifikoan duen lekuari buruzko argazki bat aurkezten du. Jarraian, erabiltako metodologiaren deskribapena eskaintzen da: ikerketa-galderak, corpusaren hautaketa eta corpora aztertzekeo tresnak eta prozedurak. Azkenik, lortutako emaitzak aurkezten dira, baita euskal komunitate zientifikoak

euskara hedapen akademikorako hizkuntza gisa errotzeko dituen erronkei buruzko hausnarketa ere.

1. Marko teorikoa

Ibilbide zientifikoen kalitatea ebaluatzeko sistemen ondorioz, ikertzaileak, beren ama-hizkuntza edozein dela ere, ingelesa hizkuntza hegemonikoa duten nazioarteko eta eragin handiko aldizkari zientifikoetan argitaratu beharrean aurkitzen dira, ezinbestean (Hanauer, Sheridan eta Englander 2019). Argitalpen horietan argitaratzea ez da lana zabaltzeko modu bat bakarrik, ospea lortzeko eta unibertsitateko karreran gora egiteko tresna ere bada (Lillis; Curry 2010).

Egun, ikertzaileak, euren ikerketa arloa edozein dela ere, ebaluazio-sistema zorrotzen eraginpean daude. Sistema horietan, lanen kalitatea neurtzeko, datu-base ospetsuetan sartuta dauden eta inpaktu-faktore handia daukaten aldizkarietan egindako argitalpenak hartzen dira kontuan (JCR eta SJR, nagusiki). Hau da, adituek Thomson Reutersek edo Scimagok egindako sailkapenen barruan dauden aldizkarietan argitaratu behar dituzte euren lanak, baloratuak izango badira; eta, gehienak, ingelesezko lanak bakarrik argitaratzen dituzten aldizkariak dira. Sailkapen horietatik kanpo gelditzen diren aldizkarietan argitaratutako lanak ere baloratzen dira, baina askoz maila apalagoan.

Horrek eragina izan du komunitate eleaniztunetako ikertzaileen identitateetan. Larrinagaren azterketek (2016) erakusten dute jarduera zientifikoen balorazio-sisteman izandako aldaketek eta ezagutzaren nazioarteko-tzeak ikertzaileen pentsatzeko moduak aldatu dituztela. Orain, kontzientzia estrategiko handiagoa dago, eta hizkuntza batean edo bestean argitaratzean hartu beharreko erabakiak parametro global horien arabera hartzen dira. Horrela, balio akademiko tradizionalak alde batera utzi dira, eta ekonomia globala lehenetsi da tokiko gizartearen premien aurrean.

Horrek guztiak goi-mailako hezkuntza erakundeen hizkuntza-plangintzei ere eragiten die, globalizaziotik eratorritako dinamikek baldintzatuta (Bal-

four 2007). Ikertzaileon identitateetan gertatzen diren aldaketa horiek unibertsitateak aurkitzen diren bidegurutzearen isla besterik ez dira. Unibertsitateak ez zeruko ez lurreko aurkitzen dira. Alde batetik, unibertsitateek eskualdearen garapenean eta berrikuntza eta tokiko ekonomia lantzearen garrantzian jarri behar dute arreta. Beste alde batetik, nazioartekotze-eskaerak daude, kanpo finantzaketa lortzearen beharra, ingelesa hizkuntza frankoa duten harreman-sareak izatearen garrantzia eta deslokalizazioa. Era-kundeak badaki tokiko hizkuntzetan egindako lanek ez dutela ikusgarritasun estrategikorik eta bikaintasun akademikoa lortzeko modua ezagutza ahalik eta jende gehienarengana hel dadin lortzea dela (Benneworth; Fitjar 2019). Hortaz, unibertsitateen lerro estrategikoen eta beharren artean inkoherentzia da nagusi (Cinar 2019).

Baina, inkoherentzia horiekin egunerokotasunean topatzen diren iker-tzaileen azalean jarrita, norbere ama-hizkuntza ez den hizkuntza batean argitaratzea ez da lan erraza. Zientzialariek, norberarena ez den hizkuntza menperatzeaz gain, diskurtso akademikoaren berezitasunak eta generoen konbentzioak identifikatu behar dituzte. Horrela, hizkuntza hegemonikoetan argitaratzen duten aldizkarietako ebaluatzaileek lan asko bazter-tzen dituzte, testuen *soimua* ez delako hizkuntza hegemoniko hori ama-hizkuntza duten egileek idatzitakoen parekoa (Thrower 2012). Ildo horretan, Hyland (2019) bezalako autoreek frogatu dute hizkuntza hege-moniko horietakoren bat sehaskatik jaso ez duten pertsonak gutxiagota-sun-egoeran daudela eremu zientifikoan. Nazioarteko izen handiko aldiz-kari edo argitaletxe horietan argitaratu nahi duten pertsonak bertako homologoek baino denbora, ahalegin eta diru gehiago inbertitu behar dute. Ikertzaileak hizkuntza-truke etengabe batean daude –hizkuntza ba-tean irakurtzen dute, beste batean idazten dute– eta horrek itzulpen pro-zesu konplexua eskatzen du, gainkarga erantsi bat. Gainera, diziplinetako terminologia hainbat hizkuntzatan menderatzea eskatzen zaie, kasu ba-tzuetan terminologia hori norbere hizkuntzan garatzeke egon arren. Ho-rrek ingelesezko terminoen erabilera ugaltzea ekarri du kasu askotan (Orkestra 2019). Hori da, batez ere, hizkuntza gutxituak dituzten komu-nitateetan gertatzen dena.

Kasurako, Apalategik (2017) adierazi duen bezala, euskarak esparru akademikoan duen presentzia –berak pedagogiaren arloa aztertzen du– oso txikia da funtsezko bi arrazoiengatik. Lehenengoak komunitate anglofonoak azterketa-arloari buruzko berrikuntzetan duen nagusitasunarekin du zerikusia. Bigarrenak, merkatuaren eskaeretara egokitzeko beharrarekin. Ideia horiek jakintzaren beste arlo batzuei zein beste hizkuntza gutxituei aplika dakizkieke.

Euskararen eta diskurtso akademikoaren arteko harremana hobeto ulertzeko, garrantzitsua da euskarak azken hamarkadetan esparru akademiko euskaldunean izan duen presentzia gogoan izatea. Ahalegin horretan, besteak beste, Artetxek (2011) euskara unibertsitateira iritsi eta bai irakaskuntza-hizkuntza gisa bai eremu akademikoko komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzera iristeko prozesua aztertu zuen. Eta Iturbek, Txurrukak eta Castañedak (2020) euskarak Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultatean sartzeko egin duen bidea kontatzen dute lekukotasun historikotik. Baina azken urte gutxitan asko garatu da ekoizpen zientifikoak sortu eta baloratzeko modua, eta egun kezkatzen gaituena da jakitea zer gertatzen den ezagutza zientifikoaren hedapenarekin, gaur egun ulertzen dugun bezala. Horretarako, 80ko hamarkada funtsezkoa izan zen, euskarak normalizazio prozesua hasi zuen (10/1982 Legea) eta hala Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU, 1981ean) nola Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP, 1987an) sortu ziren garai berean. Biak bi planteamendurekin sortu ziren: Euskal Autonomia Erkidegorako eta Nafarroako Foru Komunitaterako hezkuntza publikoa eta elebitasuna sustatzea.

Bigarren ardatz horrek garapen mailakatua izan du, eta bi lurraldeetako unibertsitate publiko (Euskal Herriko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa) zein pribatuetan (Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea) islatu da. Boillosek eta Bereziartuak (2020) berrikusten duten bezala, hamarkada hauetan zehar plan estrategikoak garatu dira esparru akademikoan euskararen presentzia sustatzeko eta bermatzeko.

Fokua zehaztetik orokorrera eramanda, UNESCOren arabera (2003), funtsean bost neurri har daitezke desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen

bizitasuna mantentzeko. Alde batetik, prestakuntza linguistikoa eta pedagogikoa; bestetik, garapen iraunkorra eta dokumentaziorako guneen sorrera. Era berean, garrantzitsua da hizkuntza politika nazionala eta adostua izatea eta hizkuntza horretako hiztun komunitatearen giza eskubideak bermatzea. Azkenik, hezkuntza-eremuari dagokion neurria dago: hezkuntza-eremuan gertatzen diren elkarrekintzetan hizkuntza gutxituak komunikazio-hizkuntza gisa hartuko dituzten politikak garatzea. Azken horrek unibertsitate-mailari ere eragin diezaioke.

Hala ere, euskara eremu akademikoko ekoizpenetan erabiltzen hastean zenbait arazo azaleratu dira. Batetik, lehen ere aipatu dugun ingelesaren nonahikotasunaren aurka borrokatzea. Bestetik, idazketa akademikoa berezkoak dituen ezaugarriekin lotutako gorabeherak. Idazketa akademikoa konbentzio zorrotz batzuek definitzen eta ezartzen dute. Hau da, diziplina jakin bateko genero diskurtsibo batek (laburpenek, artikuluek, txostenek, etab.) komunitate diskurtsiboak identifikatzeko moduko ezaugarriak izatea espero da. Horren erakusgarri da, esaterako, Heuboeck, Holmes eta Nesi (2010) egileek Erresuma Batuko unibertsitateetan egin duten ikerketa, eremu akademikoan sortzen diren genero diskurtsiboak eta testuen ezaugarriak identifikatzeko. 4000 testuz osatutako corpus batean oinarrituta, genero diskurtsiboen artean 13 familia bereizi zituzten eta haien ezaugarri prototipikoak identifikatu zituzten.

Alde horretatik, Canagarajah-ren arabera (2004), diskurtso akademikoari buruz hitz egitean, jarrera ezin da determinista izan. Beti utzi behar da espazio bat diskurtso nagusien negoziatorako, aldaketarako edo birkonfiguraziorako. Beste era batera esanda, eta Swalesekin ere bat etorritik, testu-generoak etengabe aldatzen ari dira, eta garrantzitsua da nola eboluzionatzen duten jakitea, komunikazio-testuinguruan sortzen diren eskaerei erantzun ahal izateko. Baina prozesu horrek pixkanakakoa eta eraikitzailea izan behar du, ezin da ausaz gertatu. Eta norberak ezin du idatzi aurrez ezarritako konbentzioak kontuan hartu gabe, hor kokatu behar du egileak bere ahotsa.

Beraz, sortzen den galdera honako hau da: zeintzuk dira euskarazko testu-genero horien ezaugarri nagusiak, izan diskurtsiboak edo izan linguisti-

koak? Testu horiek sortu eta irakurtzen dituzten pertsonentzat identifikagarriak eta erreproduzigarriak al dira? Lan honek ekarpen bat izan nahi du ildo horretan.

2. Metodologia

Jarraian, helburuetatik eta egindako berrikuspen bibliografikotik sortutako ikerketa-galderak aurkezten dira atal honetan. Halaber, azterketarako erabilitako corpusa aurkeztuko da, eta testuak aztertzeko tresnak eta prozedurak deskribatuko dira.

2.1. Ikerketa-galderak

Esan bezala, ikerketa honen helburua da Giza Zientzien arloko aldizkarietan euskaraz idatzitako laburpen zientifikoek dauzkaten ezaugarriak identifikatzea. Hala, helburu hori lortzeko, ikerketa-galdera hauek egin dira (aurrerago azalduko da horietako bakoitzean zehazki zer eta nola aztertu den):

- (1) Zer diskurtso-ezaugarri dauzkate euskaraz idatzitako laburpenek Giza Zientzien arloko aldizkarietan?
- (2) Zer hizkuntza-ezaugarri dauzkate genero diskurtsibo hori osatzen duten atalek?

2.2. Corpusa

Diskurtso akademikoaren inguruan egiten ari diren azterlanak berrikusita, bi ikerketa-ildo daudela ikusi da. Lehenak hizkuntzaren, diskurtsoaren eta egituraren azterketarekin du zerikusia, bai eta ingurune horretan sortzen diren testu-generoen konbentzioekin ere. Ikerketa horiek corpusaren azterketan dute oinarria. Bigarren lerroa testu akademikoak lehen edo bigarren hizkuntzan idazteak dakartzan erronkak aztertzean

datza, bai eta ikasleak trebetasun horretan trebatzeko moduak aztertzean ere (Duff 2010).

Ikerketa hau lehen ikerketa-lerroan kokatuko litzateke, eta, beraz, lehenik eta behin, corpusaren konfigurazioa gauzatu da. Hautatutako genero diskurtsiboa laburpena (*abstract*) izan da, arlo akademikoan eta ezagutzaren hedapenean duen garrantziagatik. Alegia, esparru akademikoan ezagutza zabaltzeko modurik oinarrikoena eta azkarrena delako. APAren arabera (2020), laburpen horiek lan zientifikoekin batera doaz beti (artikuluekin bereziki), baina berezko izaera dute. Testu laburrak dira, autonomoak (Tseng 2011), eta jarraian datorren testuaren ikuspegi orokorra ematen dute. Horrela, irakurleek testuarekin duten lehen harremana da, eta, beraz, erabakigarriak izango dira irakurketarekin jarraituko den ala ez erabakitzeko. Horregatik euren helburua informatiboa da, baina, aldi berean, helburu pertsuasiboa ere badute (Piqué-Noguera 2012). Genero hori definitzen duten ezaugarrien artean daude (I) zehaztasuna –atzetik duten testuaren eduki zehatza islatu behar du–, (II) objektibotasuna, (III) ideien koherentzia eta ulergarritasuna eta (IV) laburtasuna (APA 2020). Azkenik, *Writing-in-Disdisciplines* (Russell 2001) korrontearen premisen arabera, bere izaera diziplina batetik bestera aldatuko da, eta, erretorika kontrastiboaren premisen arabera, hizkuntza batetik bestera ere ezberdintasunak egongo dira.

Ikerketa honen corpora aukeratzeko, Boillosek eta Bereziartuak (2020) egindako lana hartu da oinarri. Lan horretan artikuluko zientifikoaren laburpenak euskaraz (ere) argitaratzen dituzten eta prestigio zientifikoa duten aldizkariaren sailkapen bat proposatzen da. Sailkapen horretatik abiatuta, 2019. urteko ale guztiak argitaratuta dauzkaten Giza Zientzietako aldizkariak hautatu dira. Ez dira kontuan hartu 2020ko laburpenak; izan ere, pandemiaren egoera dela-eta, aldizkari askok 2021. urtearen erdian aurreko urteko aleak artean argitaratu gabe zeuzkaten. Beraz, 1. taulan ikus daitekeen bezala, corpora lau ezagutza-arlotako (filologia, artea, geografia eta historia) 7 aldizkaritan argitaratutako 39 laburpen zientifikok osatu dute.

1. taula: Aukeratutako corpusa

Giza zientziak			Euskaraz argitaratutako artikuluen euskarazko laburpen kopurua (2019)
Aldizkariak		Ezagutza eremua	
01	Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” (ASJU)	Filologia	7
02	AusArt	Artea	2
03	Euskera	Filologia	10
04	Fontes Linguae Vasconum	Filologia	13
05	Lurralde: investigación y espacio	Geografia	2
06	Príncipe de Viana	Historia	2
07	Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía	Historia	3
Guztira			39

Iturria: egileek sortua

Laginaren ikuspegi zehatzagoa izateko, ANALHITZA (Otegi *et al.* 2017) prozesadore informatikoa aplikatu da. Bigarren taulan jasotako emaitzetan ikus daitekeenez, laburpenen luzera, batez beste, 88 hitz eta 638 hizkitakoa da. Gehienak 4/5 perpausez osatuta daude. Perpaus horiek, batez beste, 19 hitz dauzkate. Emaitza horiek bat datoz Bereziartuak eta Boillosek ikusitakoekin (2020); beraz, pentsa liteke euskaraz sortutako laburpenek ezaugarri horiek dauzkatela hitz kopuruari, perpausei eta perpausen araberako hitz kopuruari dagokienez. Hala ere, aurrerantzean aztertu egin beharko litzateke horren atzean zein arrazoi egin litezkeen, esaterako, aldizkariak laburpenen luzerari eta ezaugarriari buruz egileei egiten dizkieten eskakizunak. Lan honen egileek esku artean duten beste ikerketa baten xedea hori aztertzea da, hain zuzen ere.

2. taula: Corpuseko testuen ezaugarri kuantitatiboen batezbestekoak eta desbideratze estandarrak

	Batezbestekoa	Desbideratze estandarra
Hizki kopurua	638,59	264,360
Hitz kopurua	88,41	38,150
Esaldi kopurua	4,79	1,838
Hitz kopurua esaldi bakoitzeko	19,10	6,723

Iturria: egileek sortua

Dena den, azpimarratzekoa da emaitza horiek ez datozela bat APAREN iradokizunarekin (2020); izan ere, APAk dio laburpen zientifikoek 250 hitz inguru izan behar dituztela. Era berean, desberdintasun esanguratsuak daude ingelesezko eta gaztelaniazko antzeko ikerketetan lortutako emaitzekin alderatuta. Ingelesezt, MacDonaldek (1990) adierazten du hitzen batezbestekoa 23,26koa dela perpaus bakoitzeko; gaztelaniaz, berriz, laburpenek 132,92 hitz dituzte batez beste, eta 29,23 hitz perpaus bakoitzeko. Beraz, aipatutako bi hizkuntza horietan euskarazkoak baino luzeagoak dira artikuluz zientifikoaren laburpenak.

2.3. Corpusa aztertzeako tresnak eta prozedurak

Laburpenek zientziaren arloan duten garrantziaren ondorioz, haien izae-rari buruz gehiago jakin nahi duen ikerketa ugari dago. Lan honetan laburpenak bi ikuspuntutatik aztertuko dira: diskurtsiboa eta linguistikoa.

Alde batetik, lehenengo ikerketa-galderari erantzuteko, laburpenen izae-ra diskurtsiboa zein den jakin nahi da, eta, beraz, Swalesen teoriari jarraitzea erabaki da (2004). Teoria horren arabera, testuak mugimendu erretoriko (*moves*) ezberdinez osatuta daude, eta mugimenduak funtzio komunikatibo jakin bat duten unitate erretoriko edo diskurtsiboak dira.

Laburpenen egitura prototipikoak eta horien bereizgarri diren mugimenduak zeintzuk diren jakiteko, azterlan honetan Hylanden (2000) ereduari jarraitu zaio. Eredu honek 5 mugimendu prototipiko identifikatzen ditu laburpenetan, ingelesezko IPMPPrC siglei bide emanez. Lehenengo mugimendua *Introduction* (sarrera) da, eta azterlanaren kontzeptu-esparruari eta motibazioari buruzko informazioa jasotzen du. Bigarren mugimendua *Purpose* (helburua) da, eta bere xedea hasierako tesiak eta hipotesiak aurkeztea da. Hirugarrena metodologiari dagokio, *Methodology*, eta diseinuari, prozedurei, laginari eta abarri buruzko informazioa jaso dezake. Laugarrena *Product* (produktua) da, edo, beste era batera esanda, azterlanaren emaitza esanguratsuenak. Azkenik, *Conclusions* (ondorioak) mugimenduak lanaren inplikazioak edota aplikazioak jasotzen ditu. Azterlan honetan Hylanden ereduaren (2000) alde egin da, hemen lortu nahi denaren antzeko helburu zientifikoak dituzten azterlanetarako gehien erabili dena izan baita (Samraj 2008; Ibáñez *et al.* 2015; Quintanilla 2016; besteen artean). Hala ere, eredu malgua da, eta azterketan diagnostikatzen diren beharren arabera egokitu daiteke. Hau da, mugimendu-egitura horren bidez testu-generoaren estandarizazioa bilatzen da, baina eredu malgua da, ezagutza-eremu batetik bestera desberdintasunak egon baitaitezke.

Eredu hori oinarri hartuta, lehenik eta behin, laburpenetan agertzen diren mugimenduak identifikatu dira. Ondoren, mugimendu bakoitzean zer edukiri buruzko azalpenak ematen diren aztertu da. Joerak identifikatzeko asmoz, mugimendu bakoitza zein maiztasunekin agertzen den analizatu da, baita mugimenduen hurrenkera-motak ere. Azkenik, laburpen bakoitza osatzeko zenbat mugimendu erabili diren eta mugimendu horiek elkarrekin nola konbinatu diren aztertu da.

Beste aldetik, ikerketako bigarren galderari erantzuteko, laburpenen azterketa linguistikoa egin da. Aztergai dugun errealitatearen corpus homogeneoa eta adierazgarria sortzeko, egileek 6 irizpide zehaztu dituzte, Quintanillaren (2016) ereduan oinarrituta. Jarraian, irizpide horietako bakoitza deskribatuko da, eta azterketa gauzatzeko egindakoa azalduko da:

1. Aditzak: aniztasuna. Laburpenetako mugimenduak idazteko zein aditz erabili diren aztertu da, betiere aditz nagusiak kontuan hartuta.

Mugimendu zehatz bakoitzean errepikatzen den aditzik ba al dagoen ikusi da. Horretarako, erabilitako aditz nagusi guztiak identifikatu eta zerrendatu dira, eta aditz bakoitza erabili den maiztasuna kalkulatu da, mugimenduz mugimendu. Batetik, mugimendu bakoitzean gehien erabili diren aditzak zeintzuk izan diren ikusi da; bestetik, erabili diren aditzetan aniztasunik ba al dagoen ikusi da. Adibidez: gerta liteke *Emaitzak* mugimenduan *erakutsi* edo *aurkeztu* aditzak erabiltzeko joera egotea.

2. Aditzak: denborak. Laburpenetan erabili diren aditz nagusiak zein denboratakoak izan diren ikusi da. Horretarako, erabilitako aditz nagusi guztiak identifikatu eta aztertu dira. Adibidez: erabili diren aditzak lehenaldian, orainaldian edo etorkizunean jokotuta dauden.
3. Egilearen marka aditzetan. Laburpenetako mugimenduak idazteko erabili diren aditz nagusietan egilearen markarik agertzen den ala ez aztertu da; alegia, aditzak pertsonalizatuta jokatu diren ala despertsonalizatu egin diren. Horretarako, laburpenetan erabilitako aditz nagusiak identifikatu eta aztertu dira. Adibidez: despertsonalizatutako aditza izango litzateke *argitaratu da*, baina egilearen marka ageri da *argitaratu dugu* edo *argitaratu dut* aditzetan.
4. Adjektiboak: subjektibotasuna. Deskribapen objektibotik harago, autoren ikuspuntu subjektiboa erakusten duen adjektiborik erabili al den behatu da. Horretarako, erabilitako adjektiboak identifikatu eta aztertu dira. Adibidez: *Izugarria da eragina* esaldian *izugarria* adjektiboa subjektiboa izango litzateke.
5. Fraseologia. Mugimenduetan errepikatzen diren formulak erabiltzeko joerarik ba al dagoen ikusi da. Horretarako, laburpen guztiak mugimenduz mugimendu aztertu dira, eta corpusean formulazio egonkor gisa har ditzakegun esaldiak identifikatu dira eta errepikatzen den formulaziorik ba al dagoen jakiteko. Adibidez: *Helburua* mugimenduan *Artikulu honen helburua xxx da* gisako formulaziorik errepikatzen al den.
6. Kohesioa: diskurtso-markatzaileak. Laburpenetako mugimenduak elkarrekin josteko erabili diren diskurtso-markatzaileak aztertu dira,

mugimendu jakinetan markatzaile batzuk edo besteak erabiltzeko joerarik ba al dagoen jakiteko. Horretarako, Euskaltzaindiaren *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* (Esnal 2008) izeneko liburua hartu da erreferentzia gisa. Horretan oinarrituta, mugimenduak elkarren artean lotzeko erabilitako markatzaileak identifikatu eta aztertu dira. Adibidez: *Ondorioak* mugimendua *Ondorioz...* markatzailearekin has-teko joerarik ba al dagoen.

Azterketa linguistikoko emaitzekin batera adibideak erakutsiko dira eta adibide bakoitzari 03.19.02, *Metodologia* gisako kodea ezarriko zaio. Lehenengo bi unitateak corpusa osatu duten aldizkariari dagozkio (kasu honetan 03 zenbakia *Euskera* aldizkariari dagokio); 19 zenbakia 2019. urteari dago-kio; 02 zenbakia urte horretan argitaratutako euskarazko laburpenetatik bigarrengoari dago-kio; eta *Metodologia* hitzak laburpen hori osatzen duten mugimenduen artetik zein erakusten den adierazten du.

3. Emaitzak

Jarraian, azterlan hau gidatu duten ikerketa-galderetatik lortutako emai-tzak aurkezten dira.

3.1. Zer diskurtso-ezaugarri dute euskaraz idatzitako laburpenek Giza Zientzien arloko aldizkarietan?

Galdera honen bidez, aztertutako corpusean agertzen diren diskur-tso-mugimenduak zeintzuk diren jakin nahi da, eta egitura prototipikorik ote dagoen ikusi. Esan bezala, azterketa hau egiteko Hylanden (2000) ere-dua hartu da erreferentziatzat, baina beti ikuspegi ireki batetik, euskararen berezko eskaerei erantzuteko.

Horregatik, lehenik eta behin, mugimenduak identifikatu dira eta mugi-menduen araberrako eduki-azterketa egin da. Behatu diren mugimenduei dagokienez, 4. taulan ikus daitekeen bezala, Hylandek identifikatutako bost mugimenduak identifikatu dira, eta, horiez gain, *Antolaketa* (ANT) izena

eman zaion beste bat identifikatu da. Aurkikuntza hori jada diagnostikatu zen Bereziartuaren eta Boillosen lanean (2020).

Mugimenduetan aurkitzen diren edukiei dagokienez, 3. taulan daude ikusgai mugimendu bakoitzean behatu diren edukiak. Daturik nabarmenena aipatzearren, ikusten den moduan, ikerketaren justifikazioa bi mugimendutan agertzen da. Hala, ikus dezakegu gaiaren aurkezpenarekin edo testuinguruarekin lotzen dela, baita helburuekin ere. *Metodologiari* dagokienez, mugimendu horretan askotariko informazioa eman ohi dela ikusi dugu, nahiz eta dena ikerketaren helburua lortzeko moduari buruzkoa izan. Interagarria da, halaber, bi produktu mota (PR) bereiztea: batzuetan, azterlanetan zer emaitza mota agertzen diren azaltzen da; besteetan, zuzenean aurkezten dira emaitzarik esanguratsuenak. Azkenik, *Antolaketa* mugimenduan, edukien hurrenkeraren berri ematen da. Hau da, lanaren ideia nagusiak azaldu ordez, atalen ordena aurkezten da.

3. taula: Mugimendu bakoitzean identifikatutako edukiak

Mugimendua	Edukia
Sarrera (I)	Gaiaren aurkezpena, ikergaiari buruzko informazioa (sorrera, testuingurua...), zergatia.
Helburua (P)	Lanaren helburua, zer eta zertarako egin den, zein hipotesi planteatzen den eta hori nola jorratuko den, justifikazioa.
Metodologia (M)	Metodologia, prozedurak eta teknikak, corpusa nola lortu den, datuen azalpena, datuen iturriak, metodologiaren justifikazioa, zer emaitza lortzen diren.
Produktua (Pr)	Zein emaitza aurkeztuko diren edo lortutako emaitzak zein izan diren.
Ondorioak (C)	Azterlanarekin lortutakoak, ikerketaren ekarpenak, ondorioak.
Antolaketa (Ant)	Lanaren edukiak eta hurrenkera, eranskinen informazioa.

Iturria: egileek sortua

Mugimendu bakoitza zein maiztasunekin eta zein hurrenkeratan agertzen den aztertuta, nabarmen presentzia handiena duen mugimendua *Helburua* (P, *purpose*) (n= 34, % 87,1) dela ikus daiteke. Emaitza horrek adierazten du egileek garrantzi handiagoa ematen diotela lanaren helburuari gainontzeko mugimenduetan aurkezten den edukiari baino. Gainera, hurrenkerari begiratuta, mugimendu hori gehienetan lehen posizioan agertzen da (25 kasutan). Mugimendu horren atzetik, *Metodologia* mugimendua (M, *methodology*) agertzen da maizen (n= 21, % 53,8) eta kasu gehienetan bigarren posizioan kokatuta (14 kasutan). Bi mugimendu horiei lotuta bada nabarmentzekoa irudituz zaigun datu bat (ikus 4 taula): bai *Helburua* eta bai *Metodologia* mugimenduak behin baino gehiagotan agertzen dira bost laburpenetan (P mugimendua hiru laburpenetan eta M mugimendua bi laburpenetan); gainontzeko mugimenduekin ez da horrelakorik ikusi.

Metodologia mugimendua bezainbesteko maiztasunaz ageri da *Sarrera* (I, *Introduction*) mugimendua (n= 21, % 53,8), gehienetan lehenengo tokian kokatuta (14 kasutan). *Emaitzak* (PR, *Product*) mugimendua 16 kasutan (% 41,02) behatu da, gehienetan azken tokian kokatuta (10 kasutan). Azkenik, *Ondorioak* (C, *Conclusions*) eta *Antolaketa* (ANT) mugimenduak 8 kasutan agertzen dira (% 20,5). Azken bi mugimendu horiek agertzen diren laburpen ia guztietan laburpenaren amaieran kokatuta aurkezten dira (ondorioei buruzko mugimenduaren kasuan agertu den aldi guztietan eta antolaketa buruzko mugimenduaren kasuan agertu den 8 alditatik 7tan).

Metodologiaren atalean aurreratu dugun bezala, beste puntu interesgarri bat da ikustea aztertutako laburpenak zenbat mugimenduz osatuta dauden eta mugimendu horiek elkarrekin nola konbinatzen diren. Azterketak erakutsi duenez, laburpen gehienak hiru mugimenduz osatutakoak dira (n= 17, % 43,5). Bi mugimenduz osatutako laburpenak 14 izan dira (% 35,5), lau mugimenduz osatutakoak 7 (% 17,9) eta bada mugimendu bakarraz osatutako laburpenik ere (n= 1, % 2,5). Kalkulu horiek egitean ez dira kontuan hartu errepikatu izan diren mugimenduak.

Mugimenduen konbinazioari dagokionez, azterketa honen emaitza da corpus osoan ia ez dagoela errepikatzen den konbinaziorik. Izan ere, gehienez, konbinazio bera bi aldiz errepikatzen da. Horregatik ondoriozta daiteke ez dagoela mugimendu-patroririk arlo honetako laburpenetan.

4. taula: Mugimenduen kopurua eta konbinazioak

Mugimendu kopurua	Agerpena laburpenetan		Hurrenkera	Kopurua
	n	%		
1	1	2,5	P	1
2	14	35,8	I-P	2
			I-M	2
			I-PR	1
			I-ANT	1
			P-M	2
			P-PR	2
			P-C	1
			P-ANT	2
			P-I-P ₂	1
3	17	43,5	I-P-M	1
			I-P-PR	1
			I-P-ANT	2
			I-PR-C	1
			P-I-M	2
			P-I-PR	1
			P-M-PR	2
			P-M-ANT	2
			P-M-C	1
			P-ANT-PR	1
			I-M-P-M ₂	1
			P-I-M-P ₂	1
			P-M-PR-M ₂	1

Mugimendu kopurua	Agerpena laburpenetan		Hurrenkera	Kopurua
	n	%		
4	7	17,9	I-P-M-PR	2
			P-I-PR-C	1
			P-M-PR-C	2
			P-PR-M-C	1
			P-M-I-P ₂ -C	1

Oharra: P eta M mugimenduak errepikatu diren kasuetan azpi-indizea erantsi zaie eta hizki lodiz nabarmendu dira.

Iturria: egileek sortua

3.2. Zer hizkuntza-ezaugarri dute genero diskurtsibo hori osatzen duten atalek?

Azterketa linguistikoa egiteko hautatu dugun elementuetako bat aditza da. Artikulu zientifikoetako laburpenak eraikitzeke idazten diren mugimenduetan erabili diren aditz nagusien hiru alderdi aztertu ditugu: (1) mugimenduen arabera aditzak errepikatzen al diren edo askotariko aditzak erabiltzen al diren; (2) erabilitako aditzak zein denboratan jokatu diren; eta (3) erabilitako aditzetan autorearen zantzurik agertzen al den.

Erabili diren aditzen erroari begiratuta, bai orokorrean eta bai mugimenduka, errepikatzen diren aditzak daudela ikusi dugu. Ia mugimendu guztietan gehien erabili dena *izan* aditza izan da (*Antolaketa* mugimenduan izan ezik, gainontzeko mugimendu guztietan). Baina, horrekin batera, nabarmentzekoa iruditu zaigu *Helburua* mugimenduan *aztertu* eta *aurkeztu* aditzak ere behin baino gehiagotan erabili direla eta *Metodologia* mugimenduan beste horrenbeste gertatzen dela *eman* eta *erabili* aditzekin. Hona hemen aipatutakoen adibideak, hurrenez hurren:

1. Atzikiaren funtzioa izenen modifikatzaileak sortzea **da**, adberbioetatik, leku kasua, instrumentala edo postposizioa duten izenetatik eta izen-multzetatik. (04.19.03, *Sarrera*)

2. Konkretuki, lan honetan Euskal Autonomia Erkidegoko udal-erri guztien langabezia-tasaren bilakaera **aztertzen da** 2006-2016 epealdian, kontutan hartuta bai denboran izandako bilakaera eta baita ere banaketa espazialean ematen diren ereduak. (05.19.01, *Helburua*)

3. Hipotesiak eta zalantzak tarteko, auzi horien guztien gaineko ikuspegi orokorraren jorraketa **aurkezten du** artikuluko honek. (03.19.09, *Helburua*)

4. Bada, lan honetan testua sortu zen testuingurua hobeto ulertzeko azalpenak, testuaren edizio kritikoa, testuko ezaugarri linguistiko nagusien azterketa eta hizkeraren filiazio linguistikoari buruzko proposamena **ematen dira**. (04.19.12, *Metodologia*)

5. Sistema Konplexu Dinamiko Moldagarrien (SKDM) teoriari jarraiki, azaleko forma hutsen azterketatik harago, azterketa linguistikoaren beharra aldarrikatu ondoren, hiru teknika sailkatzaile **erabili dira** informatzaileak sailkatzekotan: multzokatze azterketa hierarkikoa, DAE metodoa eta K-batezbestekoen multzokatzea (KM) (logika lausoaren hatsarretan oinarritzen dena). (01.19.04, *Metodologia*)

Bai orokorrean eta bai zenbait mugimendutan aditz jakin batzuk maiztasun handiagoz erabili diren arren, erabilitako aditzen aniztasuna ere azpimarratzekoa da. Hona hemen mugimendu bakoitzean erabilitako aditz guztiak (alfabetikoki ordenatuta):

- Sarrera: *abiatu, argitaratu, aurkitu, baldintzatu, balio, bete, bihurtu, dokumentatu, egon, erabaki, erabili, eragin, gertatu, hitz egin, ikertu, interesa izan, izan, jardun, jarraitu, kokatu, mailegatu, marraztu, osatu, prestatu, sinatu, sortu, -tzat jo, ukan, eta uste izan.*
- Helburua: *ahalbidetu, alderatu, amaiera eman, analizatu, argitaratu, argudiatu, arreta jarri, aurkeztu, aztergai izan, aztertu, balio, defendatu, eduki, egin nahi izan, egin, eman, erreparatu, eskaini, ikertu, ilustratu, izan, nabarmendu, nahi izan, plazaratu, proposatu eta sortu.*
- Metodologia: *ageri, aipatu, atera, aurkeztu, aztertu, baliatu, bihurtu, burutu, deskribatu, egin, ekarri, eman, erabili, erreparatu, etorri, ezarri, irainu, izan, kontuan izan eta oinarritu.*

- Emaitzak: *adierazi, agerian geratu, agerian utzi, aldatu, baieztatu, bete, bilatu, egiaztatu, egin nahi izan, egin, egon, eman, eragina izan, erakutsi, eskaini, ezagutua izan, geratu, ikusi, irudikatu, iruditu, islatu, izan, jarraitu, nabarmendu, nahasi, onartu, osatu, pentsatu, sinistu, ukan eta uste izan.*
- Ondorioak: *eskaini, eztabaidatu, izan, nahi izan, proposatu, ulertu eta uste izan.*
- Antolaketa: *agertu, alderatu, aritu, arreta egin, aurkeztu, azaldu, azpimarratu, aztertu, defendatu, deskribatu, egin, egon, eman, erakutsi, erantsi, eskaini, ikertu, ikusi, jardun, kokatu, lagundu eta proposatu.*

Aditzak aztertzeke hautatutako bigarren irizpidearekin jarraituz, laburpenetan erabili diren aditz-denborei dagokienez, orainaldiko aditzak izan dira gehien erabili direnak mugimendu guztietan. Lehenaldiko eta etorkizuneko aditzak ere erabili dira, baina maila apalagoan. Lehenaldiko aditzak batik bat *Sarrera* atalean erabili dira; etorkizuneko aditzak ez dira nabarmendu mugimendu zehatz batekin lotura edukitzeagatik. Azaldukoen adibideak hemen, hurrenez hurren:

6. Hona bigarren erantzun multzo horren emaitza nagusi batzuk: inkestatuen arabera, Ipar Euskal Herrian euskara batua **ez da** ongi **ezagutua**, euskalkiekin **nahasten da** eta euskaraz eskolatuak ez diren euskaldunentzat **zalantzazkoa da**. Baina lehen arazoa lurralde horretan osoki nagusitzen den frantsesa **da**. Euskararen berean ere **eragina du**. Geroan, guti transmitituak izanez, euskalkiak ahulduko direla eta euskara batua indartuko dela **da** inkestatuengan aurreikuspen hedatuena. (03.19.01, *Emaitzak*)

7. Olaibarko hau Louis-Lucien Bonaparte euskalariak Iruñe ondo-ondoko Atarrabia herria hegoaldeko mugatzat harturik, Ezkaba menditik iparralderanzko Ezkabarte, Olaibar eta Odieta izeneko ibarrak besarkatuz **osatu zuen**. Aldaera honekin, Erroibar, Auritz, Artziabar eta Eguesibar deiturikoekin batera, printzeak cispamplonés deitu zuen azpieuskalkia **marrastu zuen**, hau guztia Hegoaldeko goi-nafarrera deitu ere egin zuen euskalkiaren barruan. (04.19.07, *Sarrera*)

Aditzei begirako hirugarren alderdian aditzek autorearen markarik ageri duten aztertu dugu. Kasu gehien-gehienetan despertsionalizatutako aditzak

erabili dira, alegia, autorearen zantzurik nabarmentzen ez zaienak. Hona hemen adibide bat:

8. Hori dela eta, artikuluko honen helburua Dantza (Telmo Esnal, 2018) filmaren azterketa **egitea da** zuzendaritza artistikoaren ikuspegiatik. Dantza filmaren alde plastikoa **aztertu da**, eta kontzeptu artistikoari, espazioaren eta koloreen erabilerari **erreparatu zaio**. Izan ere, filmaren prozesuak iraun dituen sei urteetan euskal iruditeria berri bat sortzeko ahalegina egin dela **argudiatzen da**. (02.19.01, *Helburua*)

Autorearen zantzua erakusten duten aditzen artean singularreko lehenengo pertsona erabili den kasu bakarra identifikatu da:

9. Horrela **amaiera eman diot** Odisearekin hasi nuen lanari. (03.19.05, *Helburua*)

Gainontzeko kasuetan pluraleko lehenengo pertsonan jokatu dira aditz horiek, adibide honek erakusten duen gisan:

10. Ikerketa honekin arnagune bateko (Ondarroako) nerabeek duten hizkuntza-errealitatea deskribatu **nahi dugu**, euren errealitatea diglosiarekin kontzeptuarekin zein neurritan azal daitekeen aztertzen saiatuz. Gure ahaleginean, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera ohiturak **aztertu ditugu**, bai euskara eta gaztelaniaren artekoak eta baita euskara batua eta tokiko euskararen artekoak ere. (03.19.06, *Helburua*)

Aztertu egin beharko litzateke pluralaren erabilera hori egile batek baino gehiagok idatzitako artikuluetan bakarrik gertatzen den edo funtzio maies-tatikoa duen plurala den.

Egilearen inplikazioa edo agerikotasuna aztertzeke behatu den beste iriz-pide bat adjektiboaren erabilera subjektiboa izan da. Ikusi dugunez, oso kasu bakanetan erabili dira autorearen iritzi pertsonala islatzen duten adjekti-boak. Hau izango litzateke horren adibide bat:

11. Ondorioei dagokienez, artisau-lan **izugarria** egin dela nabarmentzen da iruditeria berri bat sortze bidera, erreferentzia askotariko kontzeptu artistikoa duen film bat osatzeraino. (02.19.01, *Emaitzak*)

Testu-genero honen, alegia, laburpenaren diskurtsoa eraiki eta artikulatzeari begira, bi alderdiri erreparatu diegu: batetik, egonkortzat jo daitezkeen formulazioen erabilera, eta, bestetik, mugimenduak elkarrekin josteko erabilitako diskurtso-markatzaileak.

Mugimendu guztiak aztertuta (ikus 4 taula), hiru mugimendutan aurkitu ditugu egonkortzat jo ditzakegun formulazioak (corpuseko testuen erdietan baino gehiagotan agertu diren formulazioak jo ditugu egonkortzat): *Helburua*, *Metodologia* eta *Emaitzak* mugimenduetan. Baina ezin dugu esan formulazio horiek modu sistematikoan erabiltzen direnik edo egonkortuta daudenik. Bide horretatik gertuen daudenak *Helburua* mugimenduan aurkitutakoak izan daitezke, antzeko formulazioak edo formulazio beraren aldaerak erabili direla ikusi baitugu. Hona hemen identifikatutako formulazioak eta horien aldaera zenbait:

- [Lan / Artikulu / Saio] honen [xede / helburua] da... (Adibidez: 01.19.03)
- ... da [lan / artikulua / saio] honen [xede / helburua]. (Adibidez: 04.19.04)
- [Artikulu / Lan / Saio] honetan... [aurkezten / aztertzen / ikertzen / plazaratzen / analizatzen] da. (Adibidez: 05.19.01)
- [Artikulu / Lan / Saio] honetan... [aztertuko dugu / dugu aztergai]. (Adibidez: 04.19.08)

Aipatutakoak bere testuinguruan ikusteko adibide bat hemen:

12. Konkretuki, **lan honetan Euskal Autonomia Erkidegoko udal-erri guztien langabezia-tasaren bilakaera aztertzen da** 2006-2016 epealdian, kontutan hartuta bai denboran izandako bilakaera eta baita ere banaketa espazialean ematen diren ereduak. (05.19.01, *Helburua*)

Formulazioekin lotuta, azterlanari berari erreferentzia egiteko erabili diren adierak ere aztertu dira. Gehien errepikatzen direnak *artikulu* eta *lan* adierak dira, baina *saio*, *ikerketak* eta *ekarpen* adierak ere behatu dira.

Testuaren barruko atalak lotzeko erabilitako diskurtso-markatzaileei dagokienez, oro har ez da horien erabilera sistematikorik aurkitu. Nabarmendu

dena *Metodologia* mugimendua izan da, diskurtso-markatzaileak aldez gehien erabili diren mugimendua izan baita. Eta, zehazki, *horretarako* diskurtso-markatzailea da nabarmen gehien erabili dena. Hona hemen horren adibide bat:

13. Lan honen xedea da Ramon Saizarbitoriaren *100 metro* (1976) nobelaren irakurketa bat proposatzea memoriaren ikuspegitik. **Horretarako**, memoria ikasketetan funtsezkoak diren kontzeptu batzuk erabiliko ditugu, eta memoriaren errepresentazioa literaturan ikertzeko tresna analitikoak ere deskribatuko ditugu, narratologia kulturalaren esparruan. (04.19.05, *Helburua* eta *Metodologia*)

Gainontzeko mugimenduetan kasu bakanetan erabili dira diskurtso-markatzaileak mugimenduak elkarren artean kohesionatzeko. Hau da horren adibide bat:

14. Ekarpen honek badu berezitasun bat: idazlan klasiko bat du oinarri, Homeroren *Iliada*. Hor ageri diren izenek hogeita zortzi gizaldiz iraun dute, eta hainbat kasutan gure eguneroko bizitzaren ikur bihurtu dira. **Hori ez ezik**, Euskaltzaindiak orain arte araututako izenoi gehitzeko balio dezakete, eta horko izenak euskal irakaskuntzako hainbat mailatako ikasgaietarako lagungarri izan daitezke. Horrela amaiera eman diot *Odisearekin* hasi nuen lanari. (03.19.05, *Metodologia* eta *Helburua*)

Azterketa linguistikoa egiteko ezarri ditugun parametroez gain, bada beste ezaugarri bat aipagarria iruditu zaiguna. Ikusi dugu, oro har, mugimendu bakoitzari buruzko edukia aurkezteko esaldi bat erabili dela, edo esaldi bat baino gehiago ere bai. Baina bestelako joera bat izan daitekeena ere identifikatu dugu (n=6; % 15,3): *Metodologia* mugimenduko edukiak adierazteko, beste mugimendu bati dagokion esaldia partekatzea; kasu gehienetan *Helburua* mugimenduarekin elkartuta, baina baita *Ondorioak* edo *Emaitzak* mugimenduekin elkartuta ere. Hona hemen bi adibide:

15. Idatzizko eta ahozko lekukotasunak aintzat hartuta, etxea eta auzoa Galdoa gisa normalizatzeko argudioak ematen dira artikulu honetan. (03.19.03, *Metodologia* eta *Helburua*)

16. Txatetako elkarrizketa idatziez baliatuta, alternantzien azterketak hiru mota utzi ditu agerian: perpaus barnekoa, perpausen artekoa eta enblematikoa. (04.19.08, *Metodologia* eta *Emaitzak*)

4. Eztabaida eta ondorioak

Esku artean dugun azterlana euskarak esparru akademikoan duen egoera ezagutzea helburu duen ikerketa zabalago baten baitan kokatzen da. Lan zehatz honen helburua euskarazko Giza Zientzien esparruko laburpen zientifikoaren ezaugarri diskurtsiboak zein linguistikoak aztertzea izan da. Eredu akademikoan eta zientifikoan hizkuntza horren normalizazio- eta sistematizazio-prozesua zein den jakiteko urrats bat ematea du helburu. Azterketa hori beharrezkoa da kontuan hartzen bada euskara ezagutza zabaltzeko hizkuntza gisa lekua egiten saiatzen ari dela eta mundu horretan hizkuntza nagusiak daudela, bereziki ingelesa (Canagarajah 2004; Hanauer, Sheridan eta Englander 2019). Ildo horretan, badirudi beharrezkoa dela euskara hizkuntza zientifiko gisa sendotzeko prozesu bat egotea, horrek ezagutzaren transferentzia erraztuko duten lanak egitea ahalbidetzen baitu.

Hala ere, azterlan honen emaitzek erakusten dute, laburpenetan behintzat, ez dagoela euskaraz testu akademikoak idazteko modu homogeneorik, ez diskurtso-mailan, ez maila linguistikoan. Ikusi egin behar behatu ditugun zenbait ezaugarri joera bilakatzen diren ala ez.

Lan honetako azterketa diskurtsiboak erakutsi duenez, bai laburpenak osatzeko erabili diren mugimenduek eta bai mugimendu horietako bakoitzean deskribatu diren edukiek neurri handi batean bat egiten dute Hylandek (2000) proposatutako ereduarekin. Hala ere, aipagarriak iruditu zaizkigun bi desberdintasun ikusi ditugu. Batetik, mugimenduei dagokienez, Hylandek proposatutakoez gain beste mugimendu bat identifikatu da, *Antolaketa* izena eman zaiona. Beste ikerlan batzuetan ere eman da mugimendu horren berri (Bereziartua eta Boillos 2020; Boillos eta Bereziartua 2021), beraz, euskaraz idatzitako lan zientifikoaren laburpenetan mugimendu horrek agertzeko joera daukala esan dezakegu. Bestetik, mugimendu horietako bakoitzean deskribatu diren edukiei dagokienez, zenbait laburpenetan ikerketaren justifikazioa *Sarrera* atalean egiten dela ikusi dugu, eta *Emaitzak* mugimenduan, kasu batzuetan, lortutako emaitzen berri eman beharrean ondoren azalduko diren emaitzak zeri buruzkoak izango diren bakarrik esaten da, lortutako emaitzak zein izan diren azaldu gabe.

Laburpen gehienetan agertu den mugimendua *Helburua* izan da eta hori ere bat dator aurrez egindako beste ikerketekin (Bereziartua eta Boillos 2020; Boillos eta Bereziartua 2021), baina kasu honetan *Helburua* mugimenduaren agerpenak gainontzeko mugimenduen agerpenarekin daukan aldea handiagoa da aurreko ikerketek erakutsi dutena baino. Agian Giza Zientzien eremuan idazten diren laburpenen ezaugarri izan liteke? Edo beste ezagutza-eremu batzuetan ere gauza bera ari da gertatzen? Hizkuntzak Berariazko Helburuetarako (*Languages for Specific Purposes*) izeneko ikerle-roan badira ikerketak ezagutza-eremu baterako eta besterako idazten diren laburpenak erkatzen dituztenak (Samraj 2008; Ibáñez *et al.* 2015, besteen artean), eta, ildo horretan, euskarazko lanak aztertu ere egin dira (Boillos; Bereziartua 2021).

Mugimenduen hurrenkerari dagokionez, lehenengo tokian kokatzeko joera ikusi da *Helburua* eta *Sarrera* mugimenduetan; bigarren tokian kokatzekoa *Metodologia* mugimenduan; eta azken tokian kokatzekoa *Emaitzak*, *Ondorioak* eta *Antolaketa* mugimenduetan. Ezaugarri horri dagokionez laburpenetan homogeneousutasuna dagoela esatetik urrun, mugimenduen hurrenkerak logika bati jarraitzen diola dirudi.

Mugimendu kopuruari so eginda, hiru mugimenduz osatutako laburpenak dira nagusi. Horrek bat egiten du euskaraz idatzitako lanak ikergai hartuta gai hau jorratu duten ikerketa bakanekin (Boillos; Bereziartua 2021). Bestalde, orain arteko ikerketek erakutsi duten bide beretik (Bereziartua eta Boillos 2020; Boillos eta Bereziartua 2021), mugimenduen konbinazioari dagokionez ez da inolako joerarik atzeman. Horrek guztiak ez du bat egiten inpaktu handiko argitalpenetan nagusi diren hizkuntzetan idazten diren laburpenekin (Heuboeck, Holmes eta Nesi 2010).

Lan honetako azterketa linguistikoak azalera dituen emaitzei begiratu eta ere, badirudi homogeneousazioranzko zantzu batzuk badaudela, baina oraindik urrun gaudela helmuga horretatik. Laburpenetan erabili diren aditzei erreparatuta, *Helburua* eta *Metodologia* mugimenduetan aditz jakin batzuk erabiltzeko joera egon daitekeela dirudi, baina gainontzean aditzen aniztasuna nagusitzen da. Erabili diren aditzak orainaldian erabili dira nagusiki, eta gehienetan ez zaie egilearen markarik erantsi. Adjektiboen bidez

ere ez da adierazi egilearen ikuspuntutik. Egonkortutako esapideei dagokienez, *Helburua* mugimenduan atzeman dira norabide horretan doazela diruditen adierazpenak. Erabilitako diskurtso-markatzaileei dagokienez, esan liteke *Metodologia* mugimenduan behatu dela joeratzat har genezakeen idazmoldea, baina gainontzeko mugimenduetan ez da horrelakorik ikusi.

Aurrez ere aipatu bezala, ikerketa diskurtsibo-linguistiko honen emaitzek erakusten dutenez, euskaraz idatzitako artikulu zientifikoaren laburpenak idazteko modu homogeneo edo sistematizaturik ez dago, noranzko horretan doazen zantzuak izan daitezkeenak hauteman diren arren. Eredu akademikoan euskaraz idazteari dagokionez berariaz adostutako araurik egon ez arren, aztertutako testuek erakusten dutena izan liteke esparru akademiko idazmoldeetara hurbiltzeko ahalegin bat.

Dena dela, ikusitako guztia kontuan hartuta, bi ondorio nagusi atera daitezkeela begitantzen zaigu: lehenengoa da euskal komunitate akademikoak oraindik ez duela adostu laburpenak idazteko konbentziorik; bigarren-goa da laburpenak idazteko modurik ez dela sistematizatu eta, gainera, azterketa kontrastiborik egin ez den arren, badirudi ingelesaren eredu erretorikoen transferentziarik ere ez dela gertatu, ez eta maila geografikoan hurbilago dauden hizkuntzenik ere, hala nola gaztelania edo frantsesarenik.

Bi ondorio nagusi horiek zenbait hausnarketa egiteko aukera irekitzen dute. Lehenik eta behin, argi izan beharko genuke *laburpena* testu-generoaren funtzioa, baina badirudi euskal komunitate zientifikoak hori oraindik barneratu gabe daukala. Testu-genero horren funtzioa ondoren garatuta aurkeztuko den artikulua edukiei buruzko informazio pertinentea ematea da, irakurleak erabaki dezan artikulua osoa irakurri ala ez (APA 2020; Tseng 2011). Gai jakin bati buruzko literatura zientifikoa irakurri behar duen ikertzaileak beharrezkoa du aurkitzen duen guztiaren artean bere interesekoak izan daitezkeenak diskriminatzea, eta galbahe-lan hori egiten du lan horietako bakoitzaren laburpenak. Beraz, garrantzitsua da aztertzen ari garen testu-generoaren zertarakoa argi izatea.

Hari horri jarraiki, interesgarria izango litzateke euskal komunitate zientifikoaren iritzia ezagutzeko. Zein helbururekin irakurtzen dituzte laburpenak? Eta zein helbururekin sortzen? Irakurtzen dituzten laburpenak balia-

garriak egiten al zaizkie? Zer egin liteke guztiontzat baliagarri izan daitezen? Ildo horretatik, orriotan aurkeztutako lanaren helburua da euskaraz idazten diren laburpenen egoera aztertu eta ezagutzera ematea eta hortik eratorritako hausnarketak mahai gainean jartzea.

Bide horri heltzea erabakiz gero, aldaketa esanguratsuak gertatzeko gilitza aldizkari zientifikoek leukakete. Inpaktu handiko aldizkari anglofonoetan argi eta garbi zehazten dira laburpenak idazteko jarraibideak; euskarazko aldizkarietan laburpenei buruzko jarraibideak gutxi eta lausoak izan ohi dira.

Hori urrats bat litzateke diskurtso akademikoa normalizatzeko eta estandarizatzeko prozesuan. Norabide horretan beste urrats bat izango litzateke euskaraz (ere) argitaratzen duten aldizkari zientifikoak inpaktu handiko datu-baseetan sartzen ahalegintzea, eta badirudi horretan zenbait aurrerapauso ematen ari direla bide horretan (Boillos; Bereziartua 2020). Horretarako lagungarri izan liteke Unibertsitatearen babesak. Lagungarri izan liteke, halaber, Unibertsitatearen laguntza etorkizunean ikertzaile izan daitezkeen subjektuen formazioari begira.

Euskarazko idazketa akademikoen gainean badago zer aztertua, zer hausnartua eta zer eginga. Gaur-gaurkoz gutxi ikertu den esparrua da, baina ezin esan emankorra izan ez daitezkeenik.

5. Erreferentziak

AMERICAN PSYCHOLOGICAL ASSOCIATION (2020). *Publication manual of the American Psychological Association* (7th ed.). <https://doi.org/10.1037/000016S-000>

APALATEGI, Jaione (2017). «Giza eta gizarte zientziak eta pedagogia euskaraz», *Uztaro 100+* (2017): 21-26. doi: <https://doi.org/10.26876/uztaro.100plus.2017.4>

ARTETXE, Karmele (2011). *Euskara unibertsitatera bidean. Eragileak eta proiektuak (1939-1990)*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

BALFOUR, Robert J. (2007). «University language policies, internationalism, multilingualism, and language development in the UK and South Africa», *Cambridge Journal of Education* 37 (2007): 35-49. doi: <https://doi.org/10.1080/03057640601178998>

BENNEWORTH, Paul, FITJAR, Rune Dahl (2019). «Contextualizing the role of universities to regional development: introduction to the special issue», *Regional Studies, Regional Science* 6(1) (2019): 331-338. doi: <https://doi.org/10.1080/21681376.2019.1601593>

BEREZIARTUA, Garbiñe, BOILLOS, Mari Mar (2020). «Laburpen zientifikoaren izazera diskurtsiboa: Ikastorratza aldizkariaren azterketa», *IKASTORRATZA. E-Revista de Didáctica* 25 (2020): 179-207. doi: https://doi.org/10.37261/25_alea/7

BOILLOS, Mari Mar, BEREZIARTUA, Garbiñe (2020). «Euskara eremu zientifikoan: Giza eta Gizarte Zientziei buruzko aldizkarietako laburpenen azterketa kuantitatiboa (2010-2019)», *Fontes Linguae Vasconum* 129 (2020): 141-177. doi: <https://doi.org/10.35462/FLV129.5>

——— (2021). «Giza Zientzietako eta Gizarte Zientzietako abstract-ak, berdinak ote? Euskarazko laburpenen diskurtso-ezaugarriak», *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca* 26 (2021): 239-263. doi: <http://revistas.uned.es/index.php/RLLCGV/article/view/32138>

CANAGARAJAH, Suresh (2004). «Multilingual Writers and the Struggle for Voice in Academic Discourse», in *Negotiation of identities in multilingual contexts*. Bristol: Multilingual matters: 266-289. doi:<https://doi.org/10.21832/9781853596483-012>

CINAR, Ridvan (2019). «Delving into social entrepreneurship in universities: Is it legitimate yet?», *Regional Studies, Regional Science*, 6(1) (2019): 217-232. doi:<https://doi.org/10.1080/21681376.2019.1583602>

DUFF, Patricia A. (2010). «Language Socialization into Academic Discourse Communities», *Annual Review of Applied Linguistics* 30 (2010): 169–192. doi:<https://doi.org/10.1017/S0267190510000048>

ESNAL, Pello (2008). *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* (Jagon Saila). Euskaltzaindiaren argitalpen zerbitzua. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/71105.pdf

HANAUER, David I., SHERIDAN, Cheryl L., ENGLANDER, Karen (2019). «Linguistic Injustice in the Writing of Research Articles in English as a Second Language: Data From Taiwanese and Mexican Researchers», *Written Communication*, 36(1) (2019): 136–154. doi: <https://doi.org/10.1177/0741088318804821>

HEUBOECK, Alois, HOLMES, Jasper, NESI, Hilary (2020). «The BAWE Corpus Manual for the projet entitled “An Investigation of Genres of Assessed Writing in

British Higher Education”». <https://www.coventry.ac.uk/globalassets/media/global/08-new-research-section/current-projects/bawemanual-v3.pdf> helbidetik eskuratu. (2020-06-23).

HYLAND, Ken (2019). «Participation in Publishing: The Demoralizing Discourse of Disadvantage», in *Novice Writers and Scholarly Publication*. Cham, Suitza: Palgrave Macmillan, Cham: 13-33. doi: https://doi.org/10.1007/978-3-319-95333-5_2

——— (2000). *Disciplinary Discourse: Social Interactions in Academic Writing*. Michigan: Longman.

IBÁÑEZ, Romualdo, MONCADA, Fernando, SANTANA, Andrea (2015). «Variación disciplinar en el discurso académico de la Biología y del Derecho: un estudio a partir de las relaciones de coherencia», *Onomázein* 32 (2015): 101-131. doi: <https://doi.org/10.7764/onomazein.32.6>

ITURBE, Jacinto, TXURRUKA, Jesus Mari, CASTAÑEDA, Aitor (2020). *Ametz bikoitza. Euskara zientifikotzea eta zientzia euskaratzea. Zientzia eta Teknologia Fakultatearen historia euskalduna*. Bilbo: Eukal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua.

LARRINAGA, Ane (2016). «Identidades académicas en cambio en el seno de la universidad multilingüe», *Papeles del CEIC. International Journal on Collective Identity Research* 2 (2016): 1-32. doi: <https://doi.org/10.1387/PCEIC.15978>

LILLIS, Theresa, CURRY, Mary Jane (2010). *Academic writing in a global context: The politics and practices of publishing in English*. New York, NY: Routledge.

MACDONALD, Susan Peck (1990). «The literary argument and its discursive conventions», in *The Writing Scholar. Studies in academic discourse*. Newbury Park, Kalifornia: Sage Publications: 31-62.

ORKESTRA, Instituto Vasco de Competitividad (2019). «Lo que el multilingüismo nos enseña sobre la investigación en contextos complejos». <https://www.orkestra.deusto.es/es/actualidad/noticias-eventos/beyondcompetitive-ness/1853-multilinguismo-ensena-investigacion-contextos-complejos> helbidetik eskuratu. (2021-06-23).

OTEGI, Arantxa, IMAZ, Oier, DÍAZ DE ILARRAZA, Arantza, IRUSKIETA, Mikel, URÍA, Larraitz (2017). «ANALHITZA: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research», *Procesamiento del Lenguaje Natural* 58 (2017): 77-84.

PIQUÉ-NOGUERA, Carmen (2012). «Writing business research article abstracts: A genre approach», *Ibérica* 24 (2012): 211-232.

QUINTANILLA, Angie (2016). «La organización retórica del resumen o abstract del artículo de investigación en educación», *Estudios Pedagógicos* 42(2) (2016): 286-298. doi: <https://doi.org/10.4067/S0718-07052016000200016>

RUSSEL, David R. (2001). «Where do the naturalistic studies of WAC/WID point? A research review», in *WAC for the new millenium: Strategies for continuing writing-across-the-curriculum programs*. Urbana: NCTE: 259-298.

SAMRAJ, Betty (2008). «A discourse analysis of master's theses across disciplines with a focus on introductions», *Journal of English for Specific Purposes* 7 (2008): 55-67. doi: <https://doi.org/10.1016/j.jeap.2008.02.005>

SWALES, John M. (2004). *Research Genres: Exploration and Applications*. Cambridge: Cambridge University Press.

THROWER, Peter (2012). «“Eight reasons I rejected your article”: A journal editor reveals the top reasons so many manuscripts don't make it to the peer review process». *Elsevier Connect*. <https://www.elsevier.com/connect/8-reasons-i-rejected-your-article> helbidetik eskuratua. (2021-06-23).

TSENG, Fan-ping (2011). «Analysis of Move Structure and Verb Tense of Research Article Abstracts in Applied Linguistics Journals», *International Journal of English Linguistics* 1(2) (2011): 27-39. doi: <https://doi.org/10.5539/ijel.v1n2p27>

UNESCO (2003). «Vitalidad y peligro de desaparición de las lenguas». http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/CLT/pdf/LVE_Spanish_EDITED%20FOR%20PUBLICATION.pdf helbidetik eskuratua. (2021-06-23).

VAN DIJK, Teun A. (1994). «Critical Discourse Analysis», *Discourse & Society*, 5(4) (1994): 435-436. doi: <https://doi.org/10.1177/0957926594005004001>